



ikastolak



ERENTZUN IKASTOLA VIANA



Amaia Izu 9 urte zituenean hasi zen xakean jolasten eta 2004ean Espainiako Xake Txapelketa irabazi zuen. Egun, Erentzuneko Xake Eskolako irakaslea da

6. mailako ikasleak
Erentzun Ikastola

VIANA - Aurreko ikasturtean hasi zen Erentzun Ikastolako xake eskolaren ibilbidea eta urte batetik bestera kirol honen zaletasuna areagotuz doa ikastolan. 2004. urtean Espainiako txapelketa irabazi zuen Amaia Iza Abete irakaslearen eskutik, gure ikasleak mundu hau eza gutzen ari dira eta berarekin bildu dira 6. mailako ikasleak gai honen inguruan gehiago jakiteko asmoz.

Xakea bi jokalarientzako mahai-jokoa edo kirola da. Jokalari batek besteari "Xake Mate" egin behar dio erregea inguratuz bere piezekin. Bi talde daude, zuriak eta beltzak. Taula 64 laukitan antolatuta dago -8 x 8 laukitxo-, kolore beltzak eta zuriak tartekatuta. Jokalari bakoitzak 8 peoi, 2 gaztelu edo dorre, 2 zaldun edo zaldi, 2 alfil, eta dama (edo errege) eta errege bana dauzka.

Xakearen definizioa hauxe da, oinarrian, baina estrategiatik asko duen jokoa ere bada. Halaxe azaldu digu Amaiak berak.

Zenbat urterekin hasi zinen xakean jokatzen? Zergatik?

-Bederatzi urterekin hasi nintzen nire ikastolan, Paz de Zigandan, derrigorrezko arloa zelako dantzarekin batera, eta hor ezagutu nuen xakearen mundua.

Zergatik jarraitu zenuen xakearekin?


-Lehendabizi asko gustatzen zitzaidalako, nahiko ongi ematen zitzaidan eta gainera nire aitak bazekien jokatzen, bere hobby bat zen. Horregatik etxera iristen nintzenean banuen norekin praktikatu.

Zerk erakarri zintuen?

-Ez nago oso ziur. Harrapatu ninduen joko bat izan zen. Pasio bat da, futbola bezala, badauka gauza berezi hori, pertsona bat harrapatzen duena eta gogoak ematen dizkizu beti jokatzen egoteko.

Zein izan da zure ibilbide profesionala?

-Nahiko goiz hasi nintzen jokatzen eta baita txapelketa munduan ere goiz sartu nintzen, 10-11 urterekin. Ongi ematen zitzaidanez, Espainiako txapelketara joateko aukera izan



Amaia Izu, erdian, 6. mailako kaze-tari pres-tuekin.

Amaia Iza Abete

XAKE ESKOLAKO IRAKASLEA

"Balore asko bultzatzen ditu xakeak: errespetua, enpatia, kontzentrazioa..."

nuen. Horregatik, gero eta gehiago jokatzen hasi nintzen, bidaia eta lagun asko egin nituen xakea dela medio. Aurrerago, irakasle partikularra eduki nuen, horrek eman zidan 2004ean Espainiako Txapelketa irabazteko ahalmena. Unibertsitatean hasi nintzenean, xakeak denbora asko kentzen zidanez alboratu behar izan nuen. Hura amaitzean, bueltatu nintzen lagunekin xakera jokatzerat. Orduan erabaki nuen nahi nuela xakearen

"Xakea nire bizmodua da, klaseak ematen aritzen ez naizenean partidak jokatzen nabil, edo xakea zabaltzeko modu berrietan pentsatzen"

"Orain 22 ikasle inguru ditut Erentzun Ikastolan. Gaitasun handiak dituzte eta oso langileak dira nahi dutenean"

inguruan egitea nire bizimodua eta enpresa bat muntatu nuen. Orain oso pozik nago, geroz eta ikasle gehiago ditut, baita proiektu ugari buruan ere.

Gaur egun zer da zuretzat xakea? -Nire bizimodua da, nire bizitzako zati handi bat hartzen du xakeak, eguneko ordu gehienak hartzen ditu... eta klaseak ematen aritzen ez naizenean, partidak jokatzen nabil edota xakea zabaltzeko modu berrietan pentsatzen ari naiz. Egu-

neko 24 orduak xakearen inguruan pasatzen ditut.

Gu bezalako ikasle bati zer eman diezaioke xakean jolasteak?

-Oso gauza onak ematen dizkio jokalaritari. Xakean zera da garrantzitsua: jokaldi bat egin aurretik gogoeta egitea, epe luzera begiratzeta. Erabakiak hartu behar dira etengabe eta, noski, hauek izango dituzten ondorioetan pentsatu. Bizitzan berdin gertatzen da eta lagungarria da xakea. Bestalde balore asko bultzatzen ditu xakeak: errespetua, enpatia... eta atentzioa eta kontzentrazioa bezalako gaitasunak.

Trukuren bat al dago irabazteko edo ona izateko?

-Bizitzako gauza guztietan bezala trukua lan egitea da.

Nola animatu zenioke xakean hasi nahi duen bati?

-Niretzat oso garrantzitsua den esperientzia bat izan dela kontatuz. Nire ikasleek ere konta dezakete euren esperientzia eta seguru hone-laxakean lehen pausak ematen animatuko zela.

Nola ikusten dituzu Erentzun Ikastolako ikasleak xakean?


-Bi talde ditut 22 ikasle inguru. Gaitasun handiak dituzte, berrietsu samarrak dira, baina oso-oso langileak nahi dutenean. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zertarako da ona xakea?
 2. Zein da xakean ona izateko trukua?
 3. Beste kirol batekin konparatzen da xakeak sor dezakeen zaletasuna, zeinekin?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

- OINEZ BALEA (1): Itziar Irisarri (Baztan Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Inhar Gastearena (Paz de Ziganda Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.